

INFO-RECYCLE



Jon Egurcegui
Nicolas Maneiro
Nikolas Esteban
Unai Lizartza
Julen Beloki

BALIO PROPOSAMENA

1- Zaborra zaborrontzira botatzerako orduko zalantzetan lagunduko digu aplikazio honek, laguntza honekin zabor guztia bereizteko gai izango gara bakoitza bere zaborrontzira botatzeko.

2- Gaur egun merkatuan ez dago bereizketa hau egiten duen aplikaziorik, orduan zerbitzuengatik bezeroek guri ordaintzeko prest egongo dira.

MERKATU SEGMENTAZIOA

Bezero segmentaziorik ez da egongo aplikazio hau ateratzerakoan, pertsona guztiek egunean zehar zaborra sortu eta zaborrontzira bota behar duelako.

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zaborrari buruzko aditu bat beharko degu, gaiaren informazioa lortzeko.

Aplikazioa sortzeko web orri doain batean egin dezakegu.

Aplikazioa diseinatzeko pertsona bat beharko degu, diseno on bat nahi badegu aditu bat beharko degu, bestela guk egin dezakegu.

Aplikazioa programatzeko taldeekiden artean egingo genuke.

Aplikazioan publizitatea beharko genuke dirua lortzeko, aplikazioetan publizitatea erraza delarik.

DIRU ITURRIAK

Aplikazioa doakoa izango da, beraz beste diru iturri batzuk lortu beharko ditugu.

Publizitatean zentratuko gara, publizitatea lortzea nahiko erraza delako, eta eraginkorra.

Estatuaren diru laguntzekin kontaktzea ere espero dugu, herriko ingurumenean lagungarria izango delako, beraz, ordainketa bakarreko diru sarrera lortuko genuke, edota ordainketa errepikariak izan daitezkenak ere.

Informazioa ere salduko dugu, bezeroek zaborretara botatzen dituzten produktuak jakiteko, hau da, kontsumitzen dutena jakiteko, eta horrela supermerkatu edo janari dendei saltzeko.

Prezioren sailkapenik ez da beharrezkoa izango, ez baitugu dirurik lortuko bezeroengatik

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio kanalak, sare sozialak izango dira gehienbat, sare sozialetan publizitate gisa gure aplikazioa jarriko dugu, horrela lortuko dugu bezeroen interesa eta pertzepzioa. Interneten bidez ere jarriko ditugu anuntzioak, baita egunkari edo dena delakoetan. Banaketa oso erraza izango da, google play eta app store aplikazioetan egongo da gure app-a, edonork eskura ahal izateko, doain.

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko gure aplikazioa publizitatuko dugu hainbat lekutan, adibidez autobus geltokietan, egunkarian edo sare sozialetan.

Aplikazioak bezeroen galderei erantzungo die, eta kontaktatzeko aukera izango dute gmail edo telefono bidez.

Aplikazioan kamara bidez objektu bati argazkia ateratzean, aplikazioak detektatuko du ze materialez eginda dagoen eta ze zakarrontzira bota behar de ongi erreziklatzeko. Horrela errez eta azkar lortu dezake bezeroak nahi duen informazioa.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

baliabide fisikoak: lokal bat, ordenagailu batzuk, aplikazioaren diseinua egiteko materialak,

baliabide intelektuala eta giza baliabideak: aplikazioa diseinatuko duen norbait, enprekin kontaktua duen norbait publizitatea sartzeko aplikazioan,

finantza baliabideak: Ditugun aurrezkiak erabiliko ditugu behar ditugun baliabide guztaik erosi ahal izateko

FUNTSEZKO JARDUERA

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure funtsezko jarduera, plataforma edo sareko jarduerak dira, aplikazio bat delako gure proiektua. Aplikazioaren helburua, gizarteak birziklatzen ikastea da, askotan jendeak ez duelako birziklatzen eta birziklatzen dutenak, batzutan akatsak egiten dituztelako gauza bakoitza zein zaborrontzira botatzeko aukeraketa egiteko orduan. Adibidez, janariarekin kontaktuan egon diren plastikoak organikora bota behar dira, eta normalean jendeak plastikora botatzen ditu, beraz duda horiek dituztenean, aplikazioan zalantzak argitzeko aukera edukiko dute, informazio testuen bidez eta produktuak identifikatuko dituen kamara baten bidez.

KOSTU EGITURA

Proiektua aurrera eramateko kontuan izan ditugu hainbat kostu faktore, izan ere diru kantitate bat dugu eta erabiltzen jakin behar dugu. Kostu-finkoak gure aplikazioan ez daude, izan ere ez da ordaindu behar aplikazio bat sortzeko eta aplikazio baten sortzaile izateagatik ez zaio inorri ordaindu behar. Kostu aldakorrek egon daitezke izan ere aplikazioa Google Play edo Apple Store-n izateagatik aplikazioa agian komisio edo diru kantitate bat ordaindu behar da plataformetan edukitzeagatik aplikazioa. Hedapen ekonomikoa ezberdina izan daiteke hilabetero, izan ere aplikazio dohaina izaterakoan dirua publizitatetik iristen zaigu, eta hilabete batean eduki ditzazkegu patrozinadore onak eta beste batean hain beste ordaintzen ez dutenak. Hasieran hasteko gure poltsikoko dirua jarri beharko dugu, zein gure hartean kantitate berdinetan banatuko dugu, irabaziak bezala.